



Antzinako lan tresnak eta lanabesak bilduta, Tolosan

'ZAHARKINAK' ▶ 1.100 bat objektu
batu dituzte Tolosako auzoetan eta
erakusketa osatu dute Ferialekuan

BALIOA ▶ Iraganak oraina eta geroa
ulertzeko bidean balio handia duela
diote erakusketako antolatzaileek ▶ 3



Zaharkinak erakusketa atzo inauguratu zuten Ferialekuan; hilaren 26a bitarte egunero izango da zabalik goizez eta arratsaldez. MADDI SOROA

LIZARTZA ▶

Ekitaldi politikoak eta jai giroa, egun osoan

Gaur bukatuko dute
herri borondatearen
aldeko asteburua ▶ 7

ELDUAIN ▶



GARAZI AZKUE

Ekitaldi asko geratzen dira oraindik

Asteazkena bitarte
dituzte elduaindarrek
herriko festak ▶ 6



LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik ateratzea
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerriaren proiektuak
- Hilerriaren eraldaketak
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobien apainketa
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behe - 20400 TOLOSA

Tel.: 943 67 01 14 - Fax: 943 34 04 67 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552
posta elektronikoa: landarris.l@terra.es



bidaide
Bidai Agentzia

Oraindik oporrik egin gabe? **ZATOZ !!!**
zure bidai agentzia berria **Villabonan**



Erniobeia kalea, 6 - behea
VILLABONA

Tel.: 943 69 26 93 • Faxe.: 943 69 25 10
E-mail: bidaide@gruposerc.com



publizitatea:
publi@iragarri.net
☎ 943 30 40 30

Euskaldunok behar dugun



UZTURRETIK ▶
EKAIN GARMENDIA

Leiho bat deserriko gauean

Aspaldi gautu du Berlinen. Leihoko markoan eserita, zigarreta errez, azpian oinez doan jendeari begiratzen diozu. Itxura estrainoa dute. Hizkuntza estrainoan hitz egiten dute. Beren barre egiteko modua ere estrainoa da oso; eta, du-darik gabe, larrutan ere estrainoki egiten dute. Estrainoak izango dira afa-londoan telebistan ikusiko dituzten saioak, eta estrainoa metroan bidaiatzen mantentzen duten isiltasuna. Leiho baten markoan eserita, arrotz izatearen kontzientzia osoa hartzen duzu. Eta zigarraren kea eta ilargia (gau beltzean timidoki igotzen den ilargia) errekonoitzen dituzu betiko bidelagun bakar gisa. Horiek berdinak ziren lehenago ere. Desorduko go-goetak deserriko gauaren pean.

Leihoko markoan itzaltzen duzu zigarrokina; azken ke erreserbak denak batera botatzen ditu honek (ei! bidelagun bakaretakoa akabatu ote dut?). Hala ere, ez zara leihotik altxatzen, gauari begira jarraitzen duzu, pentsakor, aberriaren eta larrutan egiteko estiloaren artean egon daitezkeen lotura kuriosoak deskubritu nahian. Zera zioen Sarrionaindiak, aberria ez dela leku bat espazioan, leku bat denboran baizik. Garai jakin bateko oroitza-penek osatzen omen dute aberriaz dugun ideia, gure iraganeko oihartzunek. Oroitzapen horiek inguruan errekonozitu ezin ditugunean sortu ei da deserriaren sentipena.

Ez dakizu aberriaren koordenadak paralelo eta meridianotan ala minutu eta segundotan emango ote diren. Den modura izanda ere, gaua bat daukazu argi: deserriak ez duela zerikusirik paraleloekin edota minutuekin. Deserria zuzan hasten da, zeure buruarekiko arrotz sentitzen zarenean. Hala ere, ez zara kexu; leiho bat deserriko gauean, besterik ez baituzu eskatzen.



Ongietorri beroa Ibarra Atenaseko irabazleei

ASTEKO IRUDIA ▶ Asteartean egin zien Ibarra herriak ongiatorria Xabi Fernandez ibartarrari eta Iker Martinez de Lizardui hondarribiarrari, Atenaseko Olinpiar Jokoetan belako 49er modalitatean urrezko domina irabazi berri dutenei. Harrera beroa eta jendetsua izan zen, herriaren sarreratik plazaraino

herriko talde guztiek eta hainbat herritarrek parte hartu zutelako. Bi kirolariak hunkituta agertu ziren, ez zutelako hainbesteko partaidetzarik espero eta seguraski egun horren oroimen berezia izango dute bizitza osorako. Ibarra gauzak ondo egiten badakiela erakutsi zuten beste behin. **INIGO TERRADILLOS**

IRITZIA ▶ JOKIN BILDARRATZ SORRON (TOLOSAKO ALKATEA)

Gipuzkoa, auzo askotako hiria

Tolosa Gipuzkoako hiriburu izan zen 1844tik 1854ra. Azken hiriburu forala izan zela esan da maiz, baina ez da horrela. Tolosa hiriburu izan baino lehen ez zegoen hiribururik, lurraldeko herriek ez zutelako nahi, Batzar Nagusiak eta Foru Aldundia lau herritan kokatzen ziren txandaka: Azpeitia, Azkoitia, Donostia eta Tolosa. Hori zen foruen izpiritua, herrien arteko berdintasuna. 1844an Gipuzkoako herriek, Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak hiriburu Tolosa izatea erabaki zuten, geografikoki erdialdean zegoelako. Orduan biztanlego aldetik Donostia eta Tolosa paretu ziren. Horrela hautsi zen foruen izpiritu hori eta horregatik ez da egokia hiriburu forala deitzea Tolosari.

1854an Donostiak lortu zuen hiriburutzat Madrilgo gobernuaren laguntzari esker, ez Gipuzkoako herriek hala nahi zutelako. Hala ere, beste hogeitaz Foru Aldundia eta Batzar Nagusiak Tolosan mantendu ziren, gaur egun Kultur Etxea den Triangulo plazako eraikuntzan. Desberdintasun ideologikoak ere ba omen zeuden hiriburutzat aldatzeko garaian: Donostiako liberalismoaren aurrean, Tolosan nekazal burgesia karlista zen nagusi. Madrilgo gobernu aldaketa izan zelako lortu zuen Donostiak hiriburu izatea. Atzeko atetik lortu zuen. Diputazioa eta Batzar Nagusiak aurka zeuden. Gaur egun Ibarretxe lehendakariaren planarekin egin nahi duten bezalera gertatu zen. Madrilke plana atzera botatzea ez genuke onartuko, ez litzateke demokratikoa izango.

Horregatik, 150 urte beranduago orduan gertatu zena ospatzea ez litzateke logikoa izango. Orduko Tolosako alkateak ere argitalpen bat kaleratu zuen tolosarrei hiriburutzat mantentzeko egindako kudeaketa lan guztiak eta hiriburutzat nola galdu zen azalduz.

Zergatik ez nintzen joan abuztuaren 23ko ekitaldira Donostiara? Aipatu ditut arrazoi batzuk. Hala ere, ez diot garrantzia berezirik eman nahi horri; ez dut arazo bat egin nahi gai honekin. Ez eta Gipuzkoako hiriburutzat berreskuratu nahi.

Horrekin batera, hausnarketa egiteko balio izan dit gertaera honek. Zenbait komunikabideren indarraz jabetu naiz. Askotan komunikabideek sorrarazten dituzte arazoak, protagonismoa bilatu nahian, nabarmendu nahian. Kasu batzuetan politikok komunikabideengatik baldintzatuegiak gaudela iruditzen zait.

Gipuzkoa hiri irekia da. Donostia eta Tolosa bi auzo osagarri dira. Herri guztien arteko leialtasunarekin, Diputazioaren eta Batzar Nagusien laguntzarekin, Gipuzkoa hiri bat izatea lortuko dugu. Nekez sinestuko dugu Donostiak besarkada nahi duela

proiektu supramunicipal bat —Tabacalera izan daiteke, adibidez— denon parte-hartze aktiboa izan gabe. Donostiarekiko deszentralizazioa bilatu behar da. Maragallék Zapaterori Madrilgo zenbait proiektu garrantzitsu Kataluniara eramateko proposatu dion deszentralizazioa izan daiteke adibide egokia. Gipuzkoa hain hiri txikia izanik, proiektu estrategikoak banatu eta dibertsifikatu egin behar dira, eta dibertsifikazio horretan Tolosak protagonismo berezia izan behar du. 20 minutuko tartea dago Tolosa eta Donostiaren artean, Gipuzkoa hirien erdian gaude. Donostiaren zentralismo zaharkitu hori alde batera utzi eta kontzeptua ireki egin behar dugu, gainontzeko herrien partaidetza bultzatu behar da.

Datorren asteartean, hilak 7, Artxibo Probintzialaren mendeurrena beteko da. Tolosan dago. Hor egon da 100 urtetan eta ez da arazorik izan. Lehen aipatzen nuen deszentralizazioaren adibide egokia izan daiteke. Hemendik bi urtera 750 urte beteko ditu Tolosak. Fundazio bat sortu dugu etorkizunera begira jartzeko. Juan Garmendia Larrañagaren liburu bat argitaratu eta Tolosari buruzko gida-liburua argitaratzeko lehiaketa deitu dugu. Tolosarekin batera Ordiziak eta Segurak ere bere sorreraren 750 urte beteko dituzte 2006an. Elkarlanean ari gara urtemugako ospakizunak antolatzen. Hiru herriek ardatz garrantzitsu osatzen dugu Gipuzkoa batua egiteko. Bide horretatik eraikiko dugu Gipuzkoa hiri berria.

GIPUZKOA HIRIA

«Gipuzkoa hiri irekia da. Donostia eta Tolosa bi auzo osagarri dira. Denon artean, Gipuzkoa hiria lortuko dugu»

KULTURA ▶

Arbasoek landu zituztenak

'Zaharkinak', lanabes eta tresnen erakusketa inauguratu zuten atzo Ferialekuan



Zaharkinak erakusketaren inaugurazioa egin zuten atzo Foru Aldundiko, Tolosako Udaleko eta Aranzadiko ordezkarekin Ferialekuan. MADDI SOROA

MADDI SOROA - IRATXE ETXEBESTE

«Gipuzkoan ez dugu nazio mailako museorik ez legedirik ondare hau guztia babesteko duena arkeologia alorrean dagoen bezala. Erakusketa honen helburu nagusia esku pribatuetan dagoen material horrek guztiak balore handia duela erakustea da, horregatik». Hitz horiek zabaltzen zuten atzo eguerdian Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur Zuzendari Nagusi Imanol Agotek Zaharkinak erakusketa Ferialekuan. Izan ere, norberak etxean dituen garai bateko tresnak gordetzea ezinbestekoa da, Agotek dioenez, datozen belaunaldiak gure arbasoen bizimodua ezagutuko badute.

Hamazazpigarren edizioa du erakusketa horrek honezkerok, eta aurtengoa Tolosan izateak esanahi berezia duela uste dute antolatzaileek. «Orain arte landa eremuetan edo herri txikietan ibili gara, eta iruditzen zaigu herri eta hirietako onda-



Lanabesak eta lan tresnak ikus daitezke, besteak beste. MADDI SOROA

re etnografikora hurbiltzeko unea dugula, horietan industrializazioak edo hirugarren sektorearen aurrerabideak garrantzia eta eragin handiagoa izan baitu ondare etnografikoan. Herri hau aztertu nahi ditugun ereduaren adierazle garbia da».

Tolosa «industria eta hiri tradizio handiko zentroa» izaki, udalerriko jardueraren ekonomikoarekin zerikusia duten al-

derdi industrial eta urbanoa adierazten duten tresnak jarri dituzte erakusketan antolatzaileek, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerari dagozkionez gain. «Produktzioaren ikuspegitik anitzagoa baita herri hau beste askoren aldean».

Lan tresnak eta lanabesak

Baserriko tresneria —talaburua, txerri-hiltzeko mahaia, per-

tza, konketa, palankana, kandelera...—, baserriko lanabesak —jorraie, atxurra, zokor maza, laia, belar kakoa, arto errota...—, artzaintza eta abeltzaintzako lanabesak —zaldi perra, txintzarrie, zumitze...—, ehiza eta arrantza tradizionalerakoak —azeri zepoa, arratoi kaja, arratoi kabia...— garraio sistemak —esku saskia, lera, iri uzta...— eta hainbat lanbide eta industriako balabideak —arotza, errementaria, konfiteroa, papergilea...— biltzen ditu erakusketak.

Horiek guztiak biltzeko lanetan aritu da hainbat hilabetez Aitzpea Leizaola Fermin Leizaola eta Juan Antonio Lejarzarenkin batera, eta bere esanetan, 1.100 bat objektuko erakusketa prestatu ahal izan dute, besteak beste, tolosarrek hamaika tresna utzi dizkietelako. Baserririko guneetan hasitako bilketa kalera zabaldu zuten, hala: San Estebanetik, Santa Luziatik, San Blasetik eta Tolosako beste hainbat auzotatik tresneria

IMANOL AGOTE
FORU ALDUNDIA

«Ondare hau babesteko museorik ez dugu Gipuzkoan; tresnek balio handia dutela erakutsi nahi dugu»

OLATZ PEON
TOLOSAKO UDALEKO ZINEGOTZIA

«Oso pozik gaude erakusketa hau Tolosan egiteagatik; iraganak geroarekiko duen garrantzia azaltzen du»

AITZPEA LEIZAOLA
ERAKUSKETAREN ARDURADUNA

«Garai bateko jendeak zuen bizimodua ikustea zilegi da erakusketa honen bidez; bilketa lan handia egin dugu»

Iortu ostean Tolosan historia handien duten dendetan izan ziren. Guztira, 65 etxe ingurutan Iortutako tresnak jarri dituzte Ferialekuan. «Bilketa lan handia egin dugu, eta garai batean jendeak zuen bizimodua ikustea zilegi da orain erakusketaren bidez».

Tolosako Udaleko zinegotzi Olatz Peonek ere hitz egin nahi izan zuten inaugurazio unean Ferialekura bildu ziren herritarrei: «Oso pozik gaude erakusketa hau Tolosan egiteagatik. Herria aberastu egiten dute honen gisako ekimenek, eta iraganak geroarekiko duen garrantzia azaltzen duen erakusketara gonbidatzen ditugu tolosarrak Udaletik».

Baserriko eta hiriko antzina bizimoduak elkarrizketan jarri asmo dituen Zaharkinak erakusketa hilaren 26a bitarte izango da zabalik Ferialekuan, egunero, 11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 20:30era. «Hura ikusiz hobeto ulertu eta estimatuko ditugu orain urte gutxi arte Euskal Herriko bizimodu izandakoak».

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...



Promoioa eta eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - beheha
20400 TOLOSA
Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

ARTEA



Kokobila Jauregi. Besteak beste, ireki egiten den triptiko hau egin du artista albizarrak. Hortaz aparte, beste hainbat pintura eta eskultura ditu ikusgai. Gaztari eta baratzurak eteko ohiko paisajearen zati dira eta bertan izan dituzte erakusketan zehar. J. SAKO



Txiki Orbeagoa. Adineko jendea du gustuko pintore tolosarrak margotzeko garaian. Herrialde desberdinetan zehar ibili da, baina oraingo honetan euskal iturriko agurak aukeratu ditu. J. SAKO



Jose Luis Longaron. Iluntasuna margotu du tolosarrak erakusketara. Kolore ilunak aukeratu ditu eta horiek dira nagusi Mallopean duteen lanetan. J. SAKO



Jose Luis Goenaga. Arropak koloretatu ditu Alkizan bizi den artistak: elastikoak, alkandorak, gonak, kamisioak... Bata mural antzeko oihal handi batzuk ere. Eta denak kolore bizi jantzi ditu. Jende asko bere esperimentazioak begira gelditu da egun hauetan. J. SAKO

Artearen bidezko hileta Agustín Salinasi

Arribe-Ataloko Mallope galerian Tolosaldeko hainbat artistaren lanak daude ikusgai egun hauetan

JOVENI SAKO

Dusela hiru bat hilabete hil zen Agustín Salinas arte bildumazale bilbotarraren omenez, bere lagun ziren hainbat artistak bere lanak dituzte ikusgai udan zehar Arribe-Ataloko (Nafarroa) Mallope galerian. Juan Gorritzen Bizitzare etxean, alegia. Orain arte, urterto udan erakusketak bat antolatzen zuen Gorritik bere gale-

rian, eta aurtten inguruko artistekin egitea pentsatzen zuen, baina Salinasen omenez egitea erabaki zuen eta horrela zabaldu zen beste artistetara. Artista horien artean Tolosaldeko Elena Arrese, Iñaki Epelde, Jose Luis Goenaga, Kokobila Jauregi, Jose Luis Longaron, Txiki Orbeagoa eta Jose Luis Urretabizkaia daude. Bakoitza bere estiloa lanak jarri ditu ikusgai: gehienek ko-

adroak, Jauregi eskulturak, Urretabizkaia argazkiak, Goenagak arropak. Horiez eta Juan Gorritik gain, sona handiko beste artista batzuen lanak ere bildu dituzte: Iñigo Añolagire, Rafa Balardi, Carmen Erdozia, Montxo Kabetani, Gabi Ramos Uranga, Alejandro Tapia eta Jose Luis Zametarena. Inaugurazioaren egunean 300 bat pertsona bildu omen

diro sartarari: trikua, zirauna, satorra, hartza, kukua, enara, txepe eta... Zein da bakoitza? Ezetz asmatu. Bilboko zirkonua terribularia falalo dela dio. Bizkaiko diode bat harritu onarabito joana delako. Erakusketan hiru ikusketako egun gutxi gelditzen dira, aste-astean amaituko baita, baina jarraipena izango du Donibane Lohituzen. Euskal Oñuren Museoan, artean ikusketek dagoenak hara joan behariko da.

Erakusketaren lagungarri gisa, argitalpen bat prestatu dute, atean Joseba Urretabizkaieraren eskuia nabari dela. Artista bakoitza erakusketan jarri duen lanetako baten argizkiak daude bertan, sarrera gisako bat eta Jontxu Gorritik Salinas gogoratuz egindako bertsoarekin batera. Baxer guztietatik ehorritako animalki oga, gazta eta ardo botilaren inguruan elkartuko direla

FITXA

Iturburu. Agustín Salinasen omenez.
Egunak. Irailaren 7a arte.
Oraunak. 18:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
Herria. Arribe-Atalok.
Tokia. Mallope galeria.



Joseba Urretabizkaia. Aular inguruko argazkiak egin ditu fotomoko tolosarrak bilduma honetarako. J. SAKO



Maki Epelde. Kolore biziko koadroak egin ditu pintore tolosarrak gorriak, horiak, urdinak, lur kolorekoak... J. SAKO



Elena Arrese. Enakumeak margotu ditu tolosarrak. Lan batzuk etxe azpian daude eta beste batzuk galerian bertan. J. SAKO

JUAN GORRITI ERAKUSKETAREN ANTOLATZAILEA

«Mallope ez da ohiko galeria bat, etxe bat baizik»



JOVENI SAKO

Juan Gorriti artista izan da erakusketara antolatu duena etxean duen Mallope galerian. Beste hamalau lagunekin batera, bere lanak ere jarri ditu ikusgai. **Zein zen Agustín Salinas?** Lagun bat. Hernaniko lantegi batean egiten zuen lanaz gain, arteazale eta bizikletaazalea zen. Askotan etortzen zen hona bizikletaz. Eta Ean (Bizkaia) bizikletaz zebilela bihotzkoak eman zion duela gutxi. Erakusketan honetako artisten obrak zihuen eta asko lagundua zigun. Adibidez, nire lehen erakusketan Bilbon muntatzen berak lagundua zidan. **Eta zer egin nahi izan diozue?** Elizan egiten diren hiltzen ordez, artearen bidezko hileta egin nahi izan digu hemen demon artean. Inaugurazio egunean Zapiainek saiatu da azpian daude eta beste batzuk galerian bertan. J. SAKO

irauin bitartean ez dela falako ziurtatu zuen. Gernikako lagunek piperrak, kostaldekoak atuna, Durango poeta batzuk izan ziren, musikatik eta bertsoetatik ere baziren. Arribealdean hasi eta hurrengo eguneko gozaldean bakuratu genuen hileta. Mallopeko Indioen festa zirudun. **Zer da Mallope?** Hau ez da ohiko galeria bat, etxe bat baizik. Bertiko erakusketan ez ziren lan guztiak sartzen eta etxeko beste hainbat lekutan kokatu behar izan ditugu: biltegia, etxe azpila... Etxean dauden gaurtik, baraturiak, butano bonbonak, frigorifikoak... hor gelditu dira, ez ditugu kendu. Inaugurazio egunean, arribearen prezioen zerrendan batek butano bonbonaren prezioa ere erantsi egin zuen. Aitzakia horrekin eresa tokundua egin dugu.

Zein izan da zure lana? Zurginarean arkatza. Badakit zenburi horrekin nobela lantzen bat duela Manuel Rivas idazle galiziarrek eta egun hauetako batean erakusketara haurera etortzeko da. Apurteko erakusketan batean jarri ditut nire lanak. 26 kutxa jarri ditut, baina generoa 72 egin ditut. Arkitza sabaotik zintzilikatu eta azpian urrezko arrautzak jarri ditut. Ez dakit zergatik. Hiltz gabeko poesia da nik egiten dudana. Kontu semeak lagundua dit egur zaharrek in etxeko hau egiten. **Zein dira hurrengo zure asmoak?** Madrillgo galeria batean izango dute hurrengo erakusketara sartzaren 30etik aurrera eta bertan jarri asmoa. **Galieria bizi da eta gauza bikiak ari naz prestatzen hara etamateko.** J. SAKO

Andoainen dagoen enpresa batean lan egiteko **ADMINISTRATZAILA** behar da (erret. Admin)

Eskaerak dit:

- Errore Zerbiteko diploma izatea edo L.H. (3ko titulua, administrazio arloko).
- Kontabilitate arloko ongi ezagutzea.
- Programari informatikoak erabiltzeko jakintasuna (EXCEL, ACCESS...).
- Administrazio beraren gabezia 2 urteko espezialista izatea.
- Harremanetarako gaitasuna edukitzea.

Eskaeraren dala:

Erroreko titulua batean administrazio buruaren ardurapean lan egitea. Administrazio eremuan lan egitea, azken kontabilitate, zergak, baze kudeaketa, interesen dituzten gaur egungo kurrikuluma berritu, argazkiak, gabezia bidezko gabebizkaia@jarduna.net helbide elektronikoan, edo beste helbide honetara, informazio zehatzak, jakitaren 10a baino gehiago.

Helbidea: JARDUNA SL. Oza Babiabizkaia • Gudarien Etxebidea • 20140 Andoain

JAKON

INGELESA

Tel. 943-652372
1017-481-480
GORROBEL 20
(FRANGLUOLAN)
TOLOSA

IKASLE BERRIE!
Bakoitza dagoen maila eta ordutegia erabakitzeke, interesaturik dagoena etor dadila... **LEHEN BAIT LEHEN.**

IRAILAK 15an jarriko dugu martxan kurtsio berria. **MESEDEZ** deitu edo etorri, ordutegia, maila eta beste guztiari buruz hiltz egiteko.

ESKERRIK ASKO

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
 Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua:
 68 33 61
Ibarraldea. Osasun eb: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
 ▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Azpiroz, M.A. Amaro
 auzoa, 9 (Tolosa). 943 675118.
Bihar. Etxebeste, J.M. Gernikako
 Arbola, 3 (Tolosa). 943 651040.
 Plaza. Elbarren, 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publi@tolosaldeko
 hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
 anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
 leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Umezaina. Neska bat behar da
 arratsaldetarako umeak
 zaintzeko. Telf: 650 81 96 26.

ELDUAIN ▶ JAIK

Festetako bigarren egunean murgilduta

Asteazkenean amaituko dira jaiak Elduainen; bienbitartean, adin guztietako jendeak parte hartzeko ekintzak izango dira



Zirika Zirkus pailazo ikuskizuna izan zen eguneko lehen ekintza atzo Elduainen. G. AZKUE

ERREDAKZIOA

Gehientzat udako oporraldia pasatu da, eta horrekin batera, baita Euskal Herriko herrietako festa gehienak ere. Hala ere, azken jai apurrez gozatzeko aukera dago oraindik ere; Elduainen, kasu.

Ostiralean hasi ziren El-duaingo Ama Birjinaren festak, eta, ekintzaz betetako egunak izango dira hauek herritarrentzat. Txupinazioa eta herri afaria izan ziren lehen egunean; elduaindarrak Kontzejun bildu ziren festen hasiera ospatzeko.

Atzo berriz, haurrentzat prestatutako ikuskizunekin estreinatuta eguneko egitaraua. Zirika Zirkus haur ikuskizunean ume ugari bildu zen frontoian pailazoei begira. Haurrek ongi pasatu zuten, baina baita haiek zaintzen zeuden gurasoei ere; adi-adi pailazoei begira.

Festa orotako osagai ezinbestekoak dira jatekoa eta edatekoa, musika eta jai giroa; horretatik ere soberan izan zuten elduaindarrak atzokoan. Pailazoak bukatu ostean, sagardo dastaketari ekin zioten herritarrek, txistorra eta gazta lagun zutela. Sabela bete ostean, XXXV. Toka Txapelketari ekin zioten gogotsu.

Festa giroan umorea, Pagadi



Kontzejun bildu ziren herritarrek jaiari ongietorria emateko. I. TERRADILLOS

eta Iraola eskualdeko txiste kontalariek ekarri zuten herriko festetara. Musika, berriz, David DJ Disko Festaren esku izan zen.

Gaur ere atzoko osagai horiek berak izango dira festetan, sagardo dastaketa piper eta sardinekin, haurrentzat eta gaztetxoentzat ekintzak, musika Imuntzo eta Beloki trikitalariek...

Astlehena eta astearte lasai egoteko egunak izango dira herritarrentzat; jaiak asteazkenean jarraituko dute; egun horretan ere izango da zer ikusi.

TOLOSA ▶

Oporretatik bueltan aniztasuna nabaritu da

Oporretan zaindu gabeko landareak berriz ere landatu beharra sumatu da

PABLO ALBERDI

Oporretatik bueltan hasi da berriz ere azoka betetzen. Fruituak biltzeko garaia iritsi da eta nabari da hori azoketan, fruitu ugari eta askotarikoak ageri baitira.

Zerkausian sagarrak eta udareak nabarmentzen dira, eta orokorrean, barazki eta fruta ugari ageri da.

Produktu ekologikoei dagokionez, geroz eta aniztasun handiagoa dago, eta erosleen kopurua ere gorantz doa.

Berdura plazan, berriz, oporren buelta nabaritzen da, landareak berriz ere landatzeko garaia iritsi baita.

AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Oilaskoa (3. ast.)	1,50	-
Oilaskoa (4. ast.)	1,60	-
Arkumea	3,00	3,20
Ahatea	2,50	-
Intxaurra	3,00	4,50
Arana	15,00	-
Ziazerba	1,00	2,00
Kalabaza	1,50	3,00
Lekak	4,00	-
Arrautzak	1,30	2,10
Irasagarra	3,00	6,00
Artoogia	3,50	-

Produktu ekologikoak

Udarea	1,92	2,72
Sagarra	2,13	3,00
Azenarioa	2,14	2,53
Arroza	1,90	2,00
Dilistak	2,40	-
Tipula	1,74	2,01
Letxua	1,01	-
Aza	2,53	4,05
Baraturia	1,62	7,60
Kogolloa	0,85	-

Berdura plaza

Lila	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Txilarra	4,50	-
Konifera	6,00	-
Geranioa	2,00	-
Alegria	1,00	-
Begonia	1,00	-
Surfinia	2,40	-
Izplikuia	4,00	6,00
Azalea	7,50	-
Porrua	2,40	-
Beronika	6,00	-

EGITARAUA ▶

GAUR

10:00. Meza nagusia.

11:00. Txakoli dastaketa piper eta sardinekin.

12:00. Gaztetxoan arteko pilota txapelketa: elduaindarrak berrobitarren aurka.

15:00. Puzgarriak frontoian.

18:30. Lakrikum antzerki taldearen *Greban gaude* lana.

20:00. Imuntzo eta Beloki trikitalarien emanaldia.

LIZARTZA ▶ GIZARTEA



Kalejiran abiatu ziren atzo goizeko hamarretan Lizartzako hainbat herritar. IÑIGO TERRADILLOS

Gaur amaituko da herri borondatearen aldeko asteburua

Bertsolariak trikipoteoan eta herri bazkarian, eta ekitaldi politikoak goizez eta arratsaldez dira nagusi gaurkoan

IÑIGO TERRADILLOS

Aurten Udalaren aldetik ez da herriko jairik izan Lizartzan, baina hala eta guztiz ere ekitaldi ugari antolatu ditu Herri Bartzordeak herri borondatearen aldeko asteburu honetan; gaurko egunarekin batera amaituko dira ekitaldiok.

Gazte txean izan zen gosariarekin eman zieten atzo Lizartzan egunari hasiera, ondoren, kalejirari ekiteko. Goizeko hamarretan musikaz eta jai giroaz abiatu ziren gerturatu ziren herritarrek, herri gutzia zeharkatu zutelarik *Putreak ez udal txean* leloarekin.

Arratsaldean, adin guztietako jendeari zuzendutako ekimenak antolatu zituzten; gazte txoenek izan zuten ondo pasatzeko aukera ume jolasak izan baitziren herriko plazan. Ho-

EGITARAUA ▶

GAUR

- 09:00.** Gosaria Gazte txean.
- 10:00.** Kalejira herri osoan zehar.
- 11:30.** Ekitaldi politikoa Joseba Permach hizlari izango delarik.
- 12:00.** Trikipoteoa Xabier Silveira eta Fredi Paia bertsolarien alaituta.
- 14:00.** Herri bazkaria Kontsupen Silveira eta Paia bertsolarienkin.
- 18:00.** Jolas alternatiboak haur eta gazte txoenentzat herriko plazan.
- 20:00.** Kontzentrazioa udaletxe aurrean *EAJ-EA, Egibar dimittitu* lelopean.
- 23:00.** Gazte txean, azkeneko harrie.

rrez gain, gerturatu zen orok txokolate gozoa dastatzeko aukera izan zuen, eta baita gazta eta txorizoa jateko ere.

Giroa, berriz, bertsolarien jairu zuten atzo arratsaldean; umeak jolasean eta beste herritarrek gosea asetzen zuten bitartean bertso politikak entzun ahal izan ziren.

Gaur amaituko dira herri borondatearen aldeko asteburu honetarako antolatu dituztenak. Bertsok entzuteko aukera ere izango da, Xabier Silveira eta Fredi Paia bertsolariak ariko baitira eguerdiko trikipoteoan eta herri bazkarian. Hurrentzat, berriz, jolasak prestatu dituzte arratsalderako. Ekitaldi politikoak izango dira goizez eta arratsaldez, eta azkenik, Gazte txean emango diote bukaera jai eta aldarrikapena uztartu dituzten asteburuari.

ALEGIA ▶

Asteazkenean hasiko da ikasturte berria

Datorren asteazkenean, hilak 8, ekingo dio aurtengo ikasturte berriari Alegiako Aralar BHI Institutuak. Egun horretan, 08:30etan hasi eta 10:30ean amaituko dira eskolak. Iraileko beste egunetako ordutegia, berriz, 08:30etik 14:30era izango da. Gogoratu, bestalde, eskolara joateko garraioa erabiltzen duten ikasleek beraien zerbitzura izango dutela ohiko ordutetan eta orain arte izan den leku berean autobus zerbitzua.

TOLOSA ▶

Hilaren 8an hasiko dira Orixe Institutuan

2004-2005 ikasturtearen hasiera datorren asteazkenean, hilak 8, izango da Tolosako Orixe Institutuko ikasleentzat. Lehendabiziko egunean ikasturte berrirako aurkezpena izango dute ikasleek; DBHko ikasleek goizeko bederatzietan izango dute aurkezpena. Batxilergoko lehenengo mailako ikasleek hamarretan, eta bigarren mailakoak eta ziklokoak, berriz, hamaiketan hasiko dira. Ekaina bitarte, ikasteko garaia heldu zaie ikasleei.

BERASTEGI ▶

Tailerrak antolatu ditu jubilatuen elkarteak

Aurreko urtean bezala, Berastegiko Gaitzainondo jubilatuen elkarteak tailer ezberdinak antolatu ditu aurtengoa ere. Egur taila, laboreak eta yoga tailerrak egiteko aukera izango da eta parte hartu nahi duenak bertara joan beharko du izena ematera, eskolak segituan hastekoak dira eta. Bestalde, Azagrara (Espainia) bidaiari antolatu dute elkarteak kideek hilaren 21erako eta joan nahi duenak ere izena ematera joan beharko du egoitzara.



Orixe Institutua. HITZA

ANOETA ▶

Asteartean hasiko dira eskolak Herri Ikastolan

Anoetako Herri Ikastolako ikasleek asteartean, hilak 7, izango dute aurtengo ikasturte berriko lehendabiziko eskola eguna. Egun horretan, goizeko bederatzietan izango da, beraz, ikasturteko hasiera ofiziala. Lehenengo egunean, DBHko ikasleek 2004-2005 ikasturtearen aurkezpena izango dute, goizeko bederatzietan hasi eta hamaiketan amaituko direlarik eskolak. Ondorengo egunetan ordutegia ohikoa izango da.

TOLOSA ▶

Abesbatzako emanaldiak hasiko dira

Datorren asteartean, hilak 7, Santa Maria parrokiako abesbatzaren eta orkestraren entseguak hasiko dira berriro. Entseguak betiko orduan izango dira Santa Maria parrokiaren bertan. Abesbatzaren hurrengo emanaldia, berriz, Izaskungo ermitan izango da datorren igandean, hilak 12. Goizeko hamaiketan egingo den Meza Nagusian izango dute herritarrek, berriro ere, parrokiko abesbatzaren doinuak entzuteko aukera.

iragarki laburrak ▶

Administrazio laguntzailea. Eusko Jaurlaritzan eta Udaletan lan egiteko: Zarautz (6 lanpostu), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara. Informazioa doan 943 65 01 93. **Gidariak.** Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udal ezberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa doan Foru Aldundian. Informazioa zaitaz

eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. 943 65 01 93. **Sukaldari laguntzaileak, garbitzaileak, zerbitzariak.** Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan, Foru Aldundian eta ikastetxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Udal haurtzaindegiek honako langileak behar dituzte: irakasleak, hezitzaileak, zaintzaileak eta laguntzaileak. Informazioa doan. 943 65 01 93. **Liburutegiak, harreragileak.** Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan eta Foru Aldundian.

Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira. **Laborategiko teknikari, laguntzaileak.** Ur deputatzaileren kontrola, analisi klinikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93. **Ezinduak. Erreserbatutako lanpostu finkoak.** Gutxienez %33ko

ezintasuna duten pertsonentzat. Informazioa doan. 943 65 01 93. **Basozaina.** 17 postu libre Administrazio Publikoan. Informazioa doan. Deitu. 943 65 01 93. **Udaltzaingoa.** Lanpostu libreak udaltxeetan. Informazioa doan. 943 65 01 93.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Anoeta. Abraham Peñak Kostako Zikloturista Itzulia antolatuta du. Gaur 09:00etan abiatuko dira kirolariak Haizea tabernatik.

Lizartza. Gosaria Gaztebean 09:00etan; kalejira 10:00etan; ekitaldi politikoa 11:30ean (Joseba Permach); triki poteoa 12:00etan Silveira eta Paia bertsoariekin; jolasak 18:00etan; kontzertazioa 20:00etan *EAJ-EA, Egibar dimittir*; eta 23:00etan azkeneko harrie Gaztebean.

Tolosa. Udal Musika Eskolako matrikulazio epea irailaren 8ra arte egongo da irekita, goizeko 10:00etatik 13:00etara.

Tolosa. Judo, aerobik eta pilatesen izena emateko epea zabalik da Berazubiko kiroldegiko judo gelan 18:00etatik 20:00etara.

Tolosa. Peñascal Fundazioak datorren ikasturterako Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea ireki du.

Villabona. Endika Abril errebotetxearen txapelketa. 09:00etan hasiko dira partidak Errebotetxe plazan. Sarako Izarra-Luzean, Behar-Zana Hardoiarrak.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Miren Gonzalez Goikoetxearen *Puzzleak* pintura erakusketa. Urriaren 9a bitarte, Aranburu Jauregian.

Tolosa. *Zaharkinak* erakusketa Ferialekuan. Hilaren 26a arte ikusgai.

JAIAK

Elduain. Meza 10:00etan; txakoli dastaketa 11:00etan; Elduain eta Berrobiko pilotari gazteboen arteko pilota partiduak 12:00etan; puzgarriak 15:00etan; Lakrikum antzerki taldearen *Greban gaude* lana 18:30ean; eta Imuntzo eta Beloki trikitilarien emanaldia 20:00etan.

ZINEMA

Tolosa. *Yo robot.* 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zineman. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean eta etzi, Ikuslearen Eguna, 19:30ean eta 22:30ean.

Kirola eta aisia Frantzian

TOLOSALDEA ▶ Frantziako Tourra joandakoena lehena, eta Frantziako lorategi batzuei ateratakoa bestea; HITZAKo irakurleen udako argazkiak dira

ALPE D'HUEZ ▶

Kike Garmendia (Tolosa).

Urtero Frantziako Tourrean izaten dira, eta, jakina, aurten ere faltatu ezin. Tolosako koadrila honek hala dio:

«Txinan egingo balitz Frantziako Tourra, gu Txinara! Txirindularitzaren jarraitzaile sutsuak gara, eta ederki pasatzen dugu».



DORDOGNE ▶

Iñigo Balerdi (Alegia).

Iñigo Balerdi alegiarra Frantzian izan da aurten, eta bertako jardin baten irudia bidali digu:

«Hona hemen Perigord Beltzean (Dordogne, Frantzia) aurkitzen den Manoir d' Eygnac-eko jardina. Benetan txukuna eta ongi zaindua. Dena eskuz landua da; ez omen da tresneria mekanikorik erabiltzen lorategia txukuntzeko».

ZORION AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!